

Unibertsitateko Enplegu eta Orientazio Zerbitzuko arduradunak astearte eta ostegunenero egongo dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean

2015/11/03

Amaia Corrales eta Maria Alonso MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enplegu eta Orientazio Zerbitzuko arduradunak asteartero eta ostegunero egongo dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Txandakako astetan, astearte goizetan (09:00etatik 12:30etara) eta ostegun arratsaldetan (14:30etatik 17:30etara) Eskoriatzako eta Aretxabaletako ikasleek aukera izango dute laguntza eta informazioa jasotzeko lan bilaketa prozesuan sakontzeko.

Enplegu eta Orientazio Zerbitzuaren helburua da laguntza ematea unibertsitateko ikasle eta ikasle ohiei lan bilaketa prozesuan; horretarako, zerbitzuak hainbat baliabide jartzen ditu ikaslearen esku, esaterako: curriculum egokiak egiten eta aurrez aurreko lan-elkarrizketak prestatzen lagundu, kontratazioaren gaineko argibideak eman, Lehen Aukera Programa edo beken gaineko informazio zabaldu... gainera, zerbitzutik kudeatu daitezke Eusko Jaurlaritzako Lanbide enplegu zerbitzuan izen-emateak eta eguneraketak.

Aipatutako aurrez aurreko zerbitzu horiek guztiez gain, ikasturtean zehar zenbait mintegi antolatuko dituzte Enplegu eta Orientazio Zerbitzuko arduradunek. Mintegi horietako lehena egingo da, hain zuzen ere, azaroaren 20an, Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleekin. Bertan, laugarren mailako ikasleek trebatuko dira, besteak beste, curriculumak egiten, beka eta diru-laguntzak bilatzen eta marka pertsonala indartzen.

Enplegu eta Orientazio Zerbitzuko arduradunekin hitzordua lotzeko, idatzi hurrengoetara:

- **Amaia Corrales:** acorrales@mondragon.edu
- **Maria Alonso:** malonso@mondragon.edu

Hemen deskargatu daiteke Enplegu eta Orientazio Zerbitzuko ikasturterako egutegia zehatza (pdf): [2015-2016 ikasturteko egutegia.](#)



Amaia Corrales eta Maria Alonso unibertsitateko Enplegu eta Orientazio Zerbitzuko arduradunak.